2025ZAUN0076

PUIANAKO BARATZE PARKEAN MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONENTZAT EGOKITUTAKO KOMUN KIMIKO ERAMANGARRIA HORNITU, JARRI ETA MANTENTZEAREN KONTRATAZIOA

CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO, COLOCACIÓN Y MANTENIMIENTO DE UN EVACUATORIO QUÍMICO PORTÁTIL ADAPTADO PARA PERSONAS CON MOVILIDA REDUCIDA EN EL PARQUE DE HUERTAS DE PUIANA

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	HIRIGINTZA, MUGIKORTASUN ETA GARAPEN IRAUNK. ARLOA / AREA DE URBANISMO, MOVILIDAD Y DESARR. SOSTENIBLE
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2025ZAUN0076

1. Kontratuaren xedea:

Kontratu honen xedea da Irungo Puianako Baratze Parkean jarriko den mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako komun kimiko eramangarri bat alokairu bidez hornitzea. Xede horren barruan sartzen da komuna hornitzea, jartzea, mantentzea, garbitzea eta kentzea.

2. Aplikatu beharreko araudia:

Enpresa esleipendunak bete beharreko erreferentziazko araudia: UNE-EN 16194:2023 araua

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du dagokion ekoizpen-zentroan garatzen dituen jarduerei zuzenean edo zeharka eragiten dien ingurumen-arloko lege-araudia osorik ezagutzeko eta betetzeko.

3. Kontratuaren baldintza bereziak:

Enpresa esleipendunak honako betebehar hauek izango ditu:

- Komun kimikoa Puianako Baratze Parkera eramatea, han instalatu beharko baita, baita jatorrizko lekura ere, alokairu-aldia amaitutakoan.
- Komun kimikoa behar adinako aurrerapenarekin instalatzea, Irungo Udalak adierazitako lekuan, kontratuaren lehen egunean erabilgarri egoteko moduan.

1. Objeto del contrato:

Este contrato tiene por objeto el suministro mediante el arrendamiento de un evacuatorio químico portátil adaptado para personas con movilidad reducida a instalar en el Parque de Huertas de Puiana de Irun, incluyendo el suministro, colocación, mantenimiento, limpieza y retirada del mismo.

2. Normativa de aplicación:

Normativa de referencia a cumplir por la empresa adjudicataria: Norma UNE-EN 16194:2023

La empresa adjudicataria se compromete a conocer y cumplir en todos sus términos la normativa legal de carácter medio ambiental que afecte directa o indirectamente a las actividades que desarrolle en el centro de producción que corresponda.

3. Condiciones particulares del contrato:

La empresa adjudicataria estará obligada a:

- Transportar el evacuatorio químico hasta el Parque de Huertas de Puiana donde deberá quedar instalado, así como hasta el lugar de origen una vez finalice el periodo de alquiler.
- Instalar el evacuatorio químico con antelación suficiente en el lugar indicado por el Ayuntamiento de Irun, que permita su puesta en funcionamiento el primer día del contrato.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: W4YN-2DJO-DR04-1M6Y
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica Maider Basurto Arraztio RESPONSABLE TÉCNICO MEDIO AMBIENTE (02/09/2025 11:18 CEST)

- Kontratatutako aldian depositua astean bitan garbitzea eta hustea, higiene- eta osasun-egoera ezin hobean egon dadin. Honako hauek barne hartuko ditu:
    - Elementua garbitu eta desinfektatuko da, barrutik zein kanpotik.
    - Usainak neutralizatzeko likido biodegradagarri, bakterizida eta aire--gozagarria berrituko da; likidoak gai horri buruzko araudia bete beharko du.
    - Komuneko papera aldatzea.
    - Elementuak egoera higieniko-sanitario egokietan daudela bermatzeko egokitzat jotzen den beste edozein neurri ere hartuko da.
    - Suertatzen den edozein arazo berrikusiko eta konponduko da.
    - Mantentze-lanen informazio-fitxa beteko da, bertan ikusteko moduan eta hurrenkera kronologikoan idatzita garbiketa- eta mantentze-lanen data, ordua, egindako lanak eta horietaz arduratu den langilea.
- Hornitutako elementuren batean akatsik edo matxurarik izanez gero, enpresa esleipendunak bere kabuz eta berehala berritu beharko du elementu akastuna, eta bere gain hartu beharko du elementu horiek, bere kabuz berriro instalatzea, Irungo Udalari inongo kosturik eragin gabe.
- Enpresa esleipendunak plegu honen xede diren beharrei erantzuteko behar diren langileak eta elementu materialak eduki beharko ditu.
- Erabilitako materialek homologatuta egon beharko dute, eta indarrean dagoen ingurumen-araudia bete beharko dute. Deposituko hondakinak indarreko araudiaren arabera baimendutako isurketa instalazioetara eramango dira.
- Kontratuaren koordinatzaile bat izendatzea, kontratuaren udal-zuzendaritzarekin solaskide izango dena kontratua gauzatzearekin zerikusia duten izapide guztietarako.

  Halaber, enpresa esleipendunaren kontratuaren koordinatzaileak telefono mugikorra eta helbide elektronikoa izan beharko ditu harremanetan jarri ahal izateko.

- Limpiar y vaciar el depósito dos veces por semana durante el periodo contratado para que esté en perfectas condiciones higiénico-sanitarias. Se incluye lo siguiente:
    - Lavado y desinfección del sanitario en su interior y exterior.
    - Renovación del líquido neutralizante biodegradable, bactericida y ambientador, que debe cumplir la normativa vigente en esta materia.
    - Reposición de papel higiénico.
    - Todas las medidas que se estimen oportunas para garantizar las adecuadas condiciones higiénico-sanitarias.
    - Revisión y resolución de cualquier anomalía que se presente.
    - Etiqueta de información de mantenimiento, en la que se anote de forma visible y cronológica la fecha, hora, tareas y el personal operario que realizaron los trabajos de limpieza y mantenimiento.
- En caso de deficiencias en alguno de los elementos suministrados o averías, la empresa adjudicataria deberá reponer por su cuenta, y de manera inmediata, el elemento defectuoso y deberá asumir la reinstalación de los mismos, por sus medios, no suponiendo en ningún caso coste alguno para el Ayuntamiento de Irun.
- La empresa adjudicataria deberá disponer del personal y los elementos materiales necesarios para atender las necesidades objeto del presente pliego.
- Los materiales que se utilicen deberán estar homologados y cumplir con la normativa medioambiental vigente. Los desechos de los tanques serán conducidos a instalaciones de vertido autorizadas según la normativa vigente.
- Nombrar a una persona coordinadora del contrato, que servirá de interlocutor con la dirección municipal del contrato para todos los trámites relacionados con la ejecución del mismo.

  Asimismo, deberá disponer de un teléfono móvil y una dirección de correo electrónico propio de la persona coordinadora del contrato de la empresa adjudicataria donde poder ponerse en contacto.

4. Komun kimikoen ezaugarri teknikoak:

Komunak UNE-EN 16194 arauan aurreikusitako ezaugarri hauek bete behar ditu gutxienez:

- Atxikitzeko depositu hermetiko bat izan beharko du, instalazio-eremuan ihesik egon ez dadin eta aurreikusitako erabilerarako behar besteko edukiera izango duena. Kabinaren barruan ur beltzen biltegi bat izan beharko du, aireztapen egokia izango duena.

- Kabinako neurriek, gutxienez, honako hauek izan behar dute:
  - ✓ Atearen baoaren zabalera 80 cm.
  - ✓ Kabinaren barrualdeak 140 cm-ko sakonera eta zabalera.

  Nolanahi ere, instalatutako komuna mugikortasun urriko pertsonek erabiltzeko egokia dela ziurtatuko da.

- Horiek osatzen dituzten materialak erresistentzia mekaniko handikoak izango dira, eta periferiasistema biribildua izango dute, izkinekin urratzetik babesteko. Halaber, fabrikazio-materiala adierazi beharko da, dentsitate handiko polietileno motakoa edo antzekoa izan daitekeena.

- Barruko itxitura, "Libre-okupatua" adierazlearekin. Kabina itxita dagoenean, ezin da barrualdea kanpotik ikusi.

- Leihoak, saretak edo beste edozein aireztapensistema izango dute, kabinaren barruan usain handirik ez dagoela bermatzeko. Kabinaren barrualdeak aireztapen-sistema egokia izango du.

- Industria-paperezko euskarriak, barnean dagokion higiene-papera duelarik

- Komunaren barrualdean baranda bat egongo da eta estalkia duen eserlekua; malgukibidez jaso ahal izango da, lehor eta garbi mantentzeko.

- Barruan behar besteko argiztapena izango dute, edo sabai zeharrargia, argi naturala kantitate nahikoan pasatzen uzten duena. Behar besteko argi-intzidentzia izan behar du.

- Tankearen gutxieneko edukiera 200 litrokoa izango da. Gainera, tankean gordeta dauden hondakinek erabiltzaileekin kontakturik ez izateko sistema izan beharko du.

- Atea barrutik eta kanpotik manipulatu ahal izango da, eta larrialdietan desblokeatu ahal izango da.

4. Características técnicas de los baños químicos:

El evacuatorio debe cumplir como mínimo las siguientes características previstas en la norma UNE-EN 16194:

- Deberá contar con un tanque de retención hermético con el fin de que no existan fugas en la zona de instalación y con capacidad suficiente para el uso previsto. Deberá tener un depósito de aguas fecales dentro de la cabina que dispondrá de una ventilación adecuada.

- Las medidas de la cabina deben ser como mínimo las siguientes:
  - ✓ Anchura del hueco de la puerta 80 cm.
  - ✓ Interior de la cabina 140 cm de profundidad y de anchura.

  En todo caso, se asegurará de que el aseo instalado sea apto para su uso por personas con movilidad reducida.

- Los materiales que la integren deberán ser de gran resistencia mecánica, con sistema de periferia redondeada de manera que se proteja el roce con las esquinas. Asimismo deberá indicarse el material de fabricación que podrá ser de tipo polietileno de alta densidad o similar.

- Cierre interior con indicador “libre-ocupado”. Cuando la cabina este cerrada, el interior no debe ser visible desde el exterior.

- Dispondrán de ventanas, rejillas o cualquier otro sistema de ventilación de manera que se garantice la inexistencia de fuertes olores en el interior de la cabina. El interior de la cabina tendrá un sistema adecuado de ventilación.

- La cabina dispondrá de portarrollos de papel industrial, incluido el papel higiénico.

- El interior de la cabina dispondrá de una barandilla y de asiento con tapadera elevable mediante resorte para mantenerlo seco y limpio.

- Contarán con iluminación suficiente en el interior o con techo translúcido que deje pasar luz natural en cantidad suficiente. Debe de tener una incidencia de luz suficiente.

- La capacidad mínima del tanque será de 200 litros. Además, deberá contar con sistema que evite cualquier contacto de los residuos depositados en el tanque de retención con las personas usuarias.

- La puerta se podrá manipular desde el interior y exterior y podrá desbloquearse en caso de emergencia.

5. Zerbitzuaren ikuskapen eta egiaztapenaren ahalmena:

Kontratatutako zerbitzuak gainbegiratzeko eta kontrolatzeko ahalmena Irungo Udaleko Hirigintza eta Garapen Jasangarriko Arloak izango du, eta arduradun/koordinatzaile bat izendatuko du.

5. Facultad de supervisión y control del servicio:

Las facultades de supervisión y control de los servicios contratados serán ejercidas por el Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible del Ayuntamiento de Irun, quién designará un responsable/coordinador.

6. Hizkuntza-baldintzak:

Enpresa esleipendunak hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren ondorioz aginduzkoak zaizkion xedapen guztiak beteko ditu. Horren arabera, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira eskaintzen diren zerbitzuen errotulu, ohar, seinale, erabilera-jarraibide, etiketa eta informazio-agiri guztiak eta gainerako komunikazio orokorrak.

6. Condiciones lingüísticas:

La empresa adjudicataria cumplirá todas las disposiciones que por mor de la doble oficialidad lingüística le sean preceptivas. A tenor de ello, se harán en euskera y en castellano todos los rótulos, avisos, señales, instrucciones de uso, etiquetas, así como documentos informativos de los servicios que se ofrecen y demás comunicaciones generales.